



## KIROLEKO INDARKERIAREN AURKAKO EUSKAL BATZORDEAREN 2020KO AZAROAREN 25EKO BILERAREN AKTA

Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordeak bilera egin du Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan, 2020ko azaroaren 25ean.

Honako hauek izan dira bileran:

- *Bingen Zupiria Gorostidi*, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.
- *Jon Redondo*, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria.
- *Ana Rosa López de Uralde Gómez*, Arabako Foru Aldundiaren Kirolaren zuzendaria
- *Carlos Sergio Achotegui*, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kirolaren zuzendaria
- *Iñaki Iturrioz*, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- *Aitor Uriarte Unzalu*, Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun zuzendaria.
- *Álvaro González Pérez*, EUDELeK izendatuta
- *Juan José Gude Prego*, Euskal Kirol Federazioen Batasunak izendatuta.
- *José Antonio Varela González*, Segurtasun Sailak izendatuta, segurtasunaren arloan prestigio handia duen pertsona baita.
- *Marian Ispizua*, euskal arlo zientifiko unibertsitarioan prestigio handia duen pertsona.
- *Iker Ugarte*, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako funtzionarioa, idazkari lanetan, ahotsarekin baina botorik gabe.
- *Jon Iriberry*, Eusko Jaurlaritzako Hobekuntza Teknikorako Zentroaren teknikaria. (Gonbidatu gisa)

Honako hauek ezin etorria adierazi dute:

- *Andoni Iturbe Amorebieta*, Eusko Jaurlaritzaren Kulturako sailburuordea
- *Goizane Alvarez Irijoa*, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteriako eta Kiroletako Zuzendari Nagusia.
- *Beatriz Arregui Gamir*, Euskal Kirol Federazioen Batasunak izendatuta
- *Maria Tato Mera*, Kirolaren munduan ospe handiko pertsona izendatua.

16.00etan hasi da bilera, Bingen Zupiria jauna presidente dela eta hau sinatzen duena idazkari dela, gai-zerrendan jasotako honako gai hauek aztertzeko:

1. – 2019ko urriaren 30eko bilerako Aktaren onarpena.
2. – 2021erako lantaldearen eta “planning”-aren aurkezpena.
3. – Futbol oinarriko indarkeriaren monitorizazio sistemaren 2019-2020ko emaitzak.
4. – Komunikaziotiko kiroleko bortizkeriaren aurkako prebentziorako gidaliburua.
5. – Arbitroei prestakuntza ematea, indarkeria-adierazpenak ebaluatzeko eta futbol-zelaietako indarkeriari buruzko datuak biltzeko.
6. – Norberak lekarkeena.

Bilerari hasiera eman aurretik, Bingen Zupiria presidentek pandemiak gaur egun gizartean, oro har, eta kirol-eremuan, bereziki, eragin duen egoerari buruzko hitzaldi labur bat egin du. Ondoren, eguneko puntuei buruz hitz egiten hasten da.

#### 1.- 2019ko urriaren 30eko, aurreko bilerako Aktaren onespena.

Akta objekziorik gabe onartzen da.

#### 2.- 2021erako lantaldearen eta “planning”-aren aurkezpena.

Jon Iriberrik, Kirolaren Euskal Eskolako arduradunak, urte honetan egindako lanaren azalpena egin du, salbuespen egoerak baldintzatuta, eta datorren urterako helburu posibleak azaldu ditu, pandemiaren bilakaerarekin lotutako ziurgabetasuna kontuan hartuta.

2019an hasitako datuak biltzeko lanarekin jarraitu da, lehiaketa garatu ahal izan den hilabeteetan. Euskal Autonomia Erkidegoko futboleko 3. mailako eta juvenil nazionaleko kategoriei eusten zaie ikerketaren helburu gisa, baina datuen biltzeko beste kategoria batzuetara zabaltzea proposatzen da, eta horrek foru aldundien lankidetzak dakar berekin, beheko kategoriak lurralde-federazioen mende baitaude, eta foru-erakundeek dute harreman estuena haiekin.

“Prestakuntza-txertoei” dagokienez, lehiaketarik ez egoteagatik ezin dela aplikatu azaldu da. Aurreko urteko datuak eta 2020 honetan egindako hilabeteak bildu ondoren, egiaztatu da adin handiagoko kirolariak dituzten kategorietan (adibidez, hirugarren mailan, non hogei, hogeita hamar edo urte gehiagoko kirolariek parte hartzen duten) planteatutako “prestakuntza-txertoek” ez luketela nahi

adinako eraginkortasunik izango, eta, beraz, zigor-ekintzekin batera prestakuntza-ekintzak diseinatzeko aukera planteatu da.

Jon Redondok proposatu du hausnarketa bat egitea, “prestakuntza-txertoek” nahi den eragina ez dutela lortzen ikusten den kasu horietan beste eredu bat diseinatzeko. Gainera, lurralde-federazioen lankidetzak eskatzea proposatu dio Batzordeari, datuak jasotzen dituzten kategoriak zabaltzeko.

Marian Ispizuak gogorarazi du aurreko urteetako azterlan batzuetan kiroleko indarkeriari buruzko datuak jasotzen direla, eta datu horiek baliagarriak izan daitezkeela indarkeria hori alderatzeko eta indarkeriaren bilakaera aztertzeko.

Etorkizuneko ariketetarako beste helburu bat datuak lortzeko estamentu gehiago batzea da, horietan objektibotasuna hobetzeko. Saiatuko da teknikariak, entrenatzaileak edo klubetako langileak sartzen, nahiz eta agerian geratu borondatezko zeregina izango litzatekeela, horrek dakarren zailtasunarekin.

### 3.- Futbol oinarriko indarkeriaren monitorizazio sistemaren 2019-2020ko emaitzak.

Aurten bildutako datuak lehiaketa ofiziala izan den hilabete gutxira mugatzen direla kontuan hartuta, Jon Iriberrik lortutako emaitzak erakusten ditu, aurreko ekitaldikoek antzekoak.

Adierazi bezala, lehiaketa hasi bezain laster datuak biltzen jarraituko da, eta lehiaketan parte hartzen duten kategoriak eta estamentuak zabaltzen saiatuko da.

### 4.- Komunikaziotiko kiroleko bortizkeriaren aurkako prebentziorako gidaliburua.

Jon Iriberrik gogorarazi duenez, Batzordearen agindua iazko azterlanean jaso zen, eta gida aurkeztu du, nahiz eta erabat osatu gabe egon. Gida honek indarkeriaren prebentziorako liburu zuria izan nahi du.

Kazetari-talde batek egiten du, baina hainbat interes-taldek parte hartu nahi dute, hala nola kazetariak (profesionalek eta kazetari izateko bidean daudenek), klubek eta irakurleek.

Euskal Kirol Prentsaren Elkartearekin elkarlanean saiatu gara, baina ez dugu baztertu gerora ere laguntzea.

Komunikazio-gida interaktibo bat sortzen saiatuko da, benetako kasu praktikoekin, bideoekin eta kontsulta-dokumentuekin.

Gida multimedia eta interaktiboa izan nahi du, ez estatikoa, eta hedapenerako, hedabideetako irudi adierazgarrien, klubetako prentsa-buruen eta ordezkaritza handiena eman diezaioketen figura guztien laguntza eskatuko da.

Marian Ispizua andreak horren berri Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean emateko eskatu du, kideek, irakasleek eta ikasleek gidan parte har dezaten.

#### 5.- Arbitroei prestakuntza ematea, indarkeria-adierazpenak ebaluatzeko eta futbol-zelaietako indarkeriari buruzko datuak biltzeko.

Arbitroei prestakuntza emango zaie, datu-bilketa zuzenagoa izan dadin eta, horrela, estamentu bat gehiago sar dadin. Prestakuntza ikastaro formatuan diseinatuta dago, bideo txikiekin, indarkeriaren adierazpen desberdinen ebaluazioa hobetu ahal izateko. Egiaztatu da federazioen aldetik ez dagoela babes handirik, eta, horregatik, Jon Redondok behin eta berriz errepikatzea gomendatzen du, federazioen laguntza lortu arte.

#### 6.- Norberak lekarkeena

- Galderen eta eskaeren atalean sartu aurretik, Aitor Uriarte Joko eta Ikuskizun zuzendariak bere sailak bildutako datuak azaldu ditu, eta iazkoarekin alderatu ditu. Laburpena: jaitsi egin da indarkeriazko gertakariengatik espedienteen kopurua, aurreko futboleko Europako lehiaketarik ez egotearekin lotuta. Igo egin dira alkohol-eta droga-kontsumoagatik espedienteak, kirol-esparruetara sartzeko kontrolen segurtasuna hobetzeagatik. Ia espediente guztiak zabaltzen dira futboleko.
- Iñaki Iturriozek adierazi du komenigarria dela datuak biltzeko programa esku-hartzera bideratzea, bildutako informazioan eta egindako diagnostikoan oinarrituta.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 17:00etan amaitu da bilkura, eta nik, idazkaria naizen aldetik, akta hau egin dut, edukiaren fede emanaz.

ONTZAT EMANA: BINGEN ZUPIRIA  
GOROSTIDI  
(Bileraren buru, Eusko Jaurlaritzako  
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua)

SIN.: IKER UGARTE TUTOR  
Kiroleko Indarkeriaren Aurkako  
Euskal Batzordearen idazkari-  
lanetan